

Emakumeen gernu-ihesa zuzentzeko ebakuntzak, errentagarriak gizartearentzat

Gernu-ihesak emakume adindunen % 15i eragiten dio, baina lautik batek bakarrik eskatzen du osasun laguntza, eta arazoa jada larria denean egiten du hori. Manuel Montesino Semperrek, Bideko Ama Birjina Ospitaleko urologia ataleko buruak, bere doktoresetan tesian aztertu du arazo hori gainditzeko interbentzio kirurgikoek zer kostu ekonomiko dakarten Nafarroako osasun publikoan. “Kostuak eta pazienteen bizi-kalitatean lortzen diren hobekuntzak alderatzen direnean —azaltzen du—, ondorio honetara iristen gara: osasunaren ekonomiaren ikuspuntutik, kostu eraginkorrekoak dira; hau da, errentagarriak dira gizartearen ikuspegitik, kostu erlatiboki baxuarekin onura nabarmenak lortzen baitira bizi-kalitatean”.

Gernu-ihesak gernua nahi gabe ateratzea dakar. Emakume adindunen kasuan, bizi-kalitatearen galera nabarmena dakar, eta artatzen dituzten urologo edo ginekologoentzako erronka handia da. Montesino doktoreak dioenez, “batzuetan ezkututzen den eta tabua den arazo honek, kostu ekonomiko handiak ekartzen ditu

osasun zerbitzuentzat eta pazienteentzat berentzat, ukiezinak diren beste kostu batzuek gain: esaterako, eragin dezaketen segurtasun-gabezia edo antsietatea”.

Gernu-ihesa mota batzuk, ahalegin fisikoarekin sortzen direnak eta txiza egiteko premiarekin edo behararekin lotzen ez direnak, ebakuntza bidez tratatu beharrekoak dira. Irtenbide gisa, gaur egun, uretran (gernua maskuritik ateratzen den bidean) jartzen diren sare txikien formako gailu artifizialak erabiltzen dira. Gailu horiei esker, guneari hobeki eusten zaio eta hobeki finkatzen da, eta uretra hobeki ixten da.

Azterlan honetan kontuan hartu diren kostuak lehenbiziko kontsulta egiten denetik ebakuntzatik urtebetera egiten den errebisiora bitartekoak dira, eta 1.250 euro ingurukoak dira paziente bakoitzeko.

Ebakuntzaren kostu ekonomikoa aztertzeaz gainera, ebakuntza egin dieten emakumeen bizi-kalitatearen hobekuntza ere balioetsi da, eta azkenik, bi parametroak erlazionatu dira. “Ondorioa da, osasunaren ekonomiaren estandarren ikuspuntutik,



Manuel Montesino Semper. Gernu-ihesa zuzentzeko ebakuntzek Nafarroako osasun publikoan eragiten duten kostua aztertu du bere doktoresetan. ARG.: NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA.

kostu eraginkorrekoak direla; hau da, errentagarriak direla gizartearen ikuspegitik, kostu erlatiboki baxuarekin, onura nabarmenak lortzen baitira bizi-kalitatean”.

Azterlanean 69 pazienteren emaitzak aztertu dira galdetegien bidez. Bata gernu-ihesari buruzkoa eta bestea osasun orokorrari buruzkoa, eta bi galdetegiek daukate nazioarteko aitortpena eta balioespena. ●

Fisikaren legeen arabera, bakterioen erreplikazioa eraginkorragoa izan daiteke

Atomoak eta molekulak modu jakin batean antolatzea edo ordenatzea ezinbestekoa da bizi izateko. Eta hori termodinamikaren bigarren legearen kontra doa, entropia txikitzea baita. Alabaina, beroa askatuz inguruneko entropia handituta kontentsatzen dute hori bizidunek. Horixe bera gertatzen da bakterioen ugalketan. Bakterio batetik bi sortzea ere ordenatze-ariketa bat da. Bada, *E. coli* eredu hartuta, bakterio berri baten osagaiak ordenatzeko askatu beharko litzatekeen bero-kantitate minimoa zein den kalkulatu du Massachusettsko Teknologia Institutuko ikertzaile-talde batek.

Eta ondorioztatu dute bero-kantitate hori *E. coli* bakterioek erreplikatzeko askatzen dutenaren heren bat dela.

Hala, eraginkortasun maximo teorikora iristeko, bakterioek bi aldiz eraginkorragoak izan beharko lukete. Ikertzaileen esanean, hori ez da probalea naturan, bakterioek kondizio desberdinetara egokitu behar dutelako, eta, beraz, ezin dutelako baldintza konkretu batzuetarako bakarrik optimizatu. Baina bioteknologiaren arloan, aukera egon liteke bakterioak eraldatuz haien eraginkortasuna handitzeko, eta, hala, bi aldiz azkarrago ugaltzen diren bakterioak sortzeko. ●

Gari-lastoa eta paper birziklatua biokonpositeen iturri

INNOBITE proiektuaren bidez, eraikuntzaren sektorean erabiltzeko produktu bihurtu nahi ditu Tecnaliak gari-lastoa eta paper birziklatua. Gari-lastotik lignina eta zelulosa erauzi nahi dituzte, eta paper birziklatutik zelulosa-nanofibrak. Produktu horiek polimeroen gehigarri gisa erabiliko dituzte ondoren, errendimendu handiko materialak sortzeko. Konpartimentuak bereizteko panelak, eta estalkientzako profilak egiteko erabiltzen diren materialak izango dira azken emaitza. Ikerketa-proiektu horren bidez, hiri- eta nekazaritza-hondakinetakoko batzuk eraikuntza-sektorerako errendimendu handiko produktu bihurtzea du helburu Tecnaliak. ●